## AQUERRETA

Krematzio errautsak ere –euri garretan– gatzatzen
hasiak dira Mutilbako errepide azpilduran.
Baltsamatu ziren haizeak –argizari isilez–
harkaitzaren lurrunezko gelatxoetan.
Eguterako orenak dagoeneko jotzeke direnean,
bakardade horia laharretan herdoiltzear,
usna daiteke karmina oskorrian.
Harantzago, majenta-gorrizko abarrotsak
goritu ahala, udateko zohargiak uzkur
urgaindu dira
ehunaren hari hormatuen sabelpean.
Aldamenean, hontz-gau harrapariak
ikatz-apar haziak hedatuz,
Mendilloriko tximini keari sabaia
ohostu dio, horma ozenaren oinpean.
Ilargi bi ilbetean esnarazi ditu berehala
orkatzaren orroak: aztiaren edarigaiztoz horditurik,
soegile dira orain sasiarteko zaurian.
Makal zuriak –sute zuriak?– herrenkan oskol zurbiletan.
(Aire-beira hitsek erroak egin dizkiote
argi-arkitektura kolorgeari).
Aleak –zinabrio eta maskuri berde– ontziratu dira
azken batez, laka garantza gandutuz,
baratzetako uzta bigunean.
Lur siena leihopetik
lur-itzal sepia kiskaliek
–okre sakon eta marroiak, izenik gabeko paisaiak–
anbarezko izen urbera gizon narruzkoari
diote ezarri.
Eta makal zuri zurbilez –sute zuriz– barrurantz tindaturik,
pintur baten ametsa jazo berri zaie, Mendillori,
Mutilba... Magencio-ko hondakinei...
promes ororen gainetik.

Imanol Irigoien
(91-VII-3)

**AQUERRETA**

*Han comenzado también a salar –lluvia en llamas– las cenizas de la cremación / en el reborde carretera de Mutilva. // Los vientos fueron embalsamados –con cera silenciosa– / en las celdillas vaporosas de la roca. // Sin aún dar las horas de la solana, / amarilla la soledad a punto de oxidarse en el matorral, / puede husmearse ya el carmín en el cielo rojizo. // Más allá, ardiente el rumor rojo–magenta del ramaje, / tímidamente se han posado sobre la superficie del agua los resplandores del estío / en el vientre del paño de escarchados hilos. // Al lado, la depredadora noche–lechuza / desparramando semillas de espuma de carbón, / le ha robado la bóveda, al pie de la tapia sonora, / al humo de la chimenea de Mendillori. // Al punto, ha despertado dos lunas llenas / el bramido del corzo: ebrias de la pócima del mago, / escrutan ahora entre la herida de los zarzales. // En fila los álamos blancos –¿incendios blancos?– en sus caparazones pálidos. // (Los vidrios de aire opaco / han provisto de raíces / a la arquitectura –descolorida– de luz). // Los granos –cinabrio y verde vejiga– / que neblinan la laca garanza, / se han envasado al fin / en la blanda mies de los huertos. // Bajo el ventanal de la tierra siena / las sepias tierras de sombra tostada / –ocres profundos y marrones paisajes sin nombre– han dado al hombre desnudo / su nombre fundente de ámbar. // Y teñido hacia el interior de un blanco desleído –de incendio blanco– de álamos / recién les acontece el sueño de una pintura a Mendillori, / Mutilva... ruinas de Magencio... / por sobre todas las promesas.*